

BERLINERAKO BIDAIA

Iritsi da eguna, ilusioa pilatzen joan da egunez egun. Asteazkena; uii bi egun, Osteguna; egun bat bakarrik! Ostirala; Gozatzer. Pirinioak atzean utziko ditugu beste esperientzia berri bat bizitzeko, bueltan ikusiko gara!

Lehenengo kapitulua:

Kotxean nago azkenean eta beste ehun euro dauzkat orain. Osotara 230, horrela bai! Joe, honek musika altuegi jartzen du. Azkenean kotxetik atera gara, baina nabaritzen da bidaiak eragin diola, mozkor bat dirudi ibiltzerakoan. Joe, nola igotzen den hegazkin hau! Berlinera iritsi gara! A ez, hau Frankfurt da. Lehenengo gastua, ur botil bat 3,80 euro... Orain bai, Berlinen gaude! Ba egia esan hostela uste baino politagoa da. Beno berandu iritsi gara, ea lo egiten uzten nauten.

Bigarren kapitulua:

Esnatzera, orain? Gainera euria ari du. Beno, gastu on bat, aterki bat 5 eurogatik, ez gara bustiko. Nahiko interesgarria da free tour hau eta Gontzal honek tipo jatorra dirudi. Ze leku politak, Brandenburgoko atea, Udaletxea, Katedralak... Tour-a bukatuta bazkaldu beharko dugu, bueno dute. Nabaritzen da kebab batean jaten duen lehen aldia dela, txerri bat dirudi. Eta arratsalde osoa libre, espero dut diru asko ez gastatzea. Beno, egun ona izan da gaurkoa, gauzak ikasi diru asko galdu gabe.

Hirugarren kapitulua:

Berriro goiz esnatzera, ohitu beharko naiz. Hau bai museo aspergarria, trenei buruzko informazio gehegi ematen dute hemen eta diru-zorroak ezta aipatu ere ez. Azkenean atera gara hemendik. Merkatu batean bazkalduko dugu! Akabatua nago, tentazio gehiegi izango ditu Amaiurrek eta behar ez dituen gauzak erosiko ditu. Azkenean atera gara infernutik, baina egia da uste baino hobe portatu dela, eskerrak. Beste arratsalde bat libre eta esan dute futbol zelai bat ikusi nahi dutela. Joe, ez diete ezta sartzan utzi, bidaia guzti hau ezertarako. Ez du inporta, beste egun bat diru asko gastatu gabe, bidaia hau ezin hobea izaten ari da.

Laugarren kapitulua:

Ze gaizki lo egin dudan, kremlera gaizki itxita neukan eta hemen ezin naiz fidatu. Eta gainera normalean baino lehenago esnatu gara... Ez dakit nora goazen baina ordu erdi daramagu autobusean. Lo ez egiteak nire baikortasunarekin bukatuko du, hau aldatu behar dut. Baina nola aldatuko dut nire jarrera makal hau, kontzentrazio-esparru batera baldin bagoaz... Joe, ze gorputz txarrarekin utzi nauen leku honek, nola jasan zitzakeen jendeak horrelako egoerak. Beno hau lehenbailehen ahaztu behar dut, zertan pentsatu dezaket... badakit, nigan pentsatuko dut. Egia esateko diru asko izaten jarraitzen dut, souvenir-etan eta janarian bakarrik gastatzen ari da dirua hau. Hitz egiteagatik, arratsalde osoa libre

eta zer egiten du honek? Hirurogeita bost euroko kamiseta bat erosi, ehuneko ehunean, zoratuta dago. Beno, azkenean hotelean, gaur bai ongi lo egingo dut.

Bosgarren kapitulua:

Gaurko gaua ezin hobea izan da, inoiz ez bezala egin dut lo. Futbol zelai batera goazela ulertu nuen atzo. Honek ez dauka zerikusirik lehenengo egunetan ikusi genuenarekin. Zelai hau handia da benetan! Hori bai nahiko aspertu naiz, ez dugu ezer egin ordu honetan zehar, ez digute ezta aldageletara sartzen utzi. Arratsaldea nola ez, libre. Dendatik dendara, gauzak probatu, ia erosi, arratsalde honek nirekin bukatuko du. Argi zegoen, iritsi da, 40 euro jertse eta praka batean, baina esan behar dut ez dela gastu txarra izan. Orain afaltzera, eta gainera biharko gosaria erosi behar dugu. Dirurik gabe geratuko naiz. Orain lo egitera, bihar jada etxera bueltatuko gara, pixka bat iraun eta kitto.

Seigarren kapitulua(azkena):

Ostras! Zortziak dira eta hamabost minututan atera behar gara, azkar azkar azkar! Presaka ibili garen arren hegazkinean gaude azkenean. Bilbora iristen ari gara, ze ongi... Hegazkin hau gehiegi mugitzen ari da eta pasada bat da! Ze ongi pasatu dudan hegazkinean. Beste gastu bat... Mesedez etxera eraman nazazue, gose handia daukat!

Azkenean etxean, nire gosea baretu egin da(diruz bete delako). Orain esperientzia hau baloratu dezaket. Egia da asko kexatu naizela baina ongi pasatu dut eta gainera Amaiur eta bere lagunei maitasun berezi bat hartu diet. Eskerrik asko bidaiagatik!